

SCRABBLE

1.- Deskribapena

Hurrek abesti bat entzungo dute, eta abestiarekin loturiko hitzekin scrabblera jolastuko dira.

2.- Helburuak

- Bake-hezkuntzarekin loturiko hitzetara ohitzea.
- Elkarlana baloratzea.

3.- Partaideak

9 urtetik aurrera.

4.- Materiala

Celtas Cortos-en “Carta a Rigoberta Menchú” abestia (“Rigoberta Menchurentzako Gutuna”). Lapitza eta papera.

5.- Abiapuntuko arauak

Alfabetoko letrak zenbait aldiz errepikatuta azaltzen diren paper zatiak ebakiko ditugu. Kartoi batean entzungo den abestiarekin loturiko hitzak idatziko ditugu, eta taldekide guztiei banatuko dizkiegu.

6.- Garapena

Hurrek Celtas Cortos-en “Rigoberta Menchurentzako Gutuna” abestia arretaz entzungo dute. Abestia amaitzen denean, bertan azaltzen diren hitz batzuk osatuko dira letrekin (adibidez: ongi etorri, adiskidea, margotu, egia, ametsak, nahi dut...), eta jokalaria, bakarka edo binaka, hitz horiekin loturiko beste hitz batzuk osatzen saiatuko dira, zenbat eta luzeagoak hobeto. Jolas hau egiteko beste abesti batzuk ere erabil daitezke.

7.- Ebaluazioa

Jolasa gustatu al zaizue? Nola sentitu zarete? Hitzak aurkitzeko elkarlanean aritu al zarete? Zein da abestiak igorri nahi digun mezua?

8.- Iturria

Bakeola. Bitartekaritza eta Gatazken Konponbiderako Zerbitzua. EDE Fundazioa. 2004. Bilbo.

ERANSKINA
ABESTIA

RIGOBERTA MENCHURENTZAKO GUTUNA

Bienvenido, ésta es la tierra de los sueños.
Cuenta y dime qué es lo que quieres soñar.
Con mi magia seremos dos compañeros,
Por tus sueños, si me invitas a pasar.

Quiero ver la luz del sol natural.
Quiero despertar sin temer morir.
Quiero caminar de país en país,
Sin tener que odiar a quien vive allí.

Bienvenido, esta es la tierra de los sueños.
Cuenta y dime qué es lo que quieres soñar.
Con mi magia seremos dos compañeros,
Por tus sueños, si me invitas a pasar.

Quiero amanecer en un mundo en paz.
Quiero resistir a ser infeliz
Quiero enamorar a esa chica, sí.
Quiero colorear el día que esté gris.

Bienvenido, ésta es la tierra de los sueños.
Cuenta y dime qué es lo que quieres soñar,
Con mi magia seremos dos compañeros,
Por tus sueños, si me invitas a pasar.

Quiero cultivar un bello jardín.
Quiero despertar en un día feliz.
Quiero cantar mis deseos, sí.
Y quiero soñar que son realidad.

(Celtas Cortos)

Ongi etorri ametsen lurrera.
Konta iezadazu zer amestu nahi duzun.
Nire magiari esker adiskideak izango gara,
Zure ametsetan sartzen uzten badidazu.

Eguzkiaren argia ikusi nahi dut.
Hiltzeko beldurrik gabe iratzarri nahi dut.
Herri batetik bestera ibili nahi dut,
Han bizi dena gorrotatu beharrik gabe.

Ongi etorri ametsen lurrera.
Konta iezadazu zer amestu nahi duzun.

Nire magiari esker adiskideak izango gara,
Zure ametsetan sartzen uzten badidazu.

Mundu baketsu batean iratzarri nahi dut.
Zoritxarrari aurre egin nahi diot.
Neska hori maitemindu nahi dut, bai.
Egun grisak kolorez margotu nahi ditut.

Ongi etorri ametsen lurrera.
Konta ieza dazazu zer amestu nahi duzun.
Nire magiari esker adiskideak izango gara,
zure ametsetan sartzen uzten badidazu.

Lorategi eder bat landatu nahi dut.
Egun zoriontsu batean iratzarri nahi dut.
Nire ametsak abestu nahi ditut, bai.
Eta egia bihurtu direla amestu nahi dut.

(Celtas Cortos)